



**Kirolean haurren eta nerabeen
babesa indarkeriaren aurrean eta
indarkeria sexuala kirolean**

PREBENTZIO-NEURRIEN KATALOGOA

2024 AZAROA



E info@aventoconsultoria.com
www.aventoconsultoria.com



Aurkibidea

1. Pertsona eta Zerbitzuak modu seguruan kontratatzea.....	3
2. Kirolarien Jokabide Kodea.....	5
3. Pertsonalaren Jokabide Kodea	8
4. Familien Jokabide Kodea	11
5. Aldagelak eta dutxak	14
6. Espazio osagarriak	16
7. Jokabidea harmailetan.....	18
8. Bidaiak eta ostatu-gauak	20
9. Komunikazioa eta irudiak.....	22
10. Familien baimena irudiak erabiltzeko	26



1. PERTSONAK ETA ZERBITZUAK MODU SEGURUAN AZPI-KONTRATATZEKO GOMENDIOAK

Kirol eremu federatua, neurri handi batean, kirolari denbora eta ezagutza eskaintzen dioten pertsona askoren boluntarioei esker sostengatzen da. Alde horretatik, kontratazio terminoa zabaldu daiteke teknikariak, medikuak edo beste estamentu bateko langileak erreklutatzeke edo hautatzeko prozesuetara, baldin eta langile horiek ez badute nahitaez beren lana egiteko lan- kontratu bat formalizatu.

Hautaketa-prozesu bat ezin izango da erabat segurutzat jo; hala ere, garrantzitsua da okerreko pertsona ez kontratatzeke neurri batzuk hartzea. Kirol-erakundeen erantzukizuna da jarduerari lotutako langile lan-kontratadunak eta boluntarioak behar bezala hautatzen direla bermatzea, eta kirolarien babeseta eta babeseta bermatzeko behar den ezagutza eta laguntza ematea.

Langileak **hautatzeko prozesuak** (teknikariak eta medikuak; administrazioko eta zerbitzuetako langileak) parametro hauen arabera egin behar dira:

- Hautaketa-prozesuak publikoak eta gardenak izan behar dira, eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraitu behar diete.
- Lanpostuen deskribapenean hautagaiari eskatuko zaizkion zeregin eta erantzukizun guztiak jaso behar dira.
- Kirolariekin zerikusia duten lanpostu-eskaintza guztiek, bereziki adin txikikoak direnean, babesari buruzko erreferentzia esplizitua izan behar dute.
- Hautagai bakoitza aurrez aurre elkarrizketatu behar da.
- Hautagaiak eskatutako lanpostuaren identitateari, lanbide-heziketari, kualifikazioei eta berariazko lanbide-esperientziari buruz emandako informazioa kontrastatu behar da.
- Gutxienez bi lan-erreferentzia eskatu eta kontrastatu behar dira.
- Eskatzaileek lan-historian eteteak badituzte, arrazoiak azaldu behar dituzte.
- Hautagai bakoitzari sexu-izaerako deliturik ez dagoelako ziurtagiria eskatu behar zaio.
- Erakundeetan sartzen diren pertsona guztiek, gehienez ere hiru hilabeteko epean, oinarrizko prestakuntza jaso beharko dute babesaren arloan, kiroleko sexu-indarkeria barne hartuta.
- Erakundeetan sartzen diren pertsona guztiek, beren kargua bete aurretik, babesari buruzko Jokabide-Kode bat irakurri eta sinatu beharko dute.
- Erakundeetan sartzen diren pertsona guztiek nahitaez irakurri beharko dute sexu-indarkeriaren aurkako protokoloa, eta dauden prebentzio-neurriak ezagutu beharko dituzte, kirolari-riena babeseta bermatzeko.



- Probaldi bat sartu behar da (sei hilabetekoa), eta probaldia amaitzean hautagaiaren ebaluazioa egin behar da.

Sexu-deliturik ez dagoela egiaztatzeko eredu.

Justizia Ministeritzan eskatu behar da.



MINISTERIO
DE JUSTICIA

**REGISTRO CENTRAL DE
DELINCUENTES SEXUALES**

CERTIFICA:

Que, en el día de la fecha, consultada la Base de Datos del Registro Central de Delincuentes Sexuales,
NO CONSTA información penal relativa a:

D./D^a **con NIF n^o**

Conforme a lo dispuesto en la Decisión Marco 2009/315/JAI del Consejo de 26 de febrero, relativa a la organización y al contenido del intercambio de información de los registros de antecedentes penales entre los Estados miembros, **tratándose de ciudadanos españoles**, el presente certificado incluye, en su caso, las condenas impuestas por otros Estados miembros de la Unión Europea, en los mismos términos en que tales condenas hayan sido notificadas, sin que exista necesariamente una equiparación entre los tipos delictivos del Estado de condena y los tipos delictivos nacionales.

licita.gob.es



2. JOKABIDE KODEA

(Kirolariak¹)

Garrantzitsua da kirolariek, beraien kide, teknikari, mediku, nahiz kirol entitatearekin erlazioa duten gainontzeko pertsonekin duten bizikidetzaren inguruko konpromisoak hartzea.

Hala ere, haurrei dagokienean, Jokabide Kode hau arretaz azaldu beharko da, hausnarketa sustatuz, eta bertan azaltzen diren jokabide guztiak ulertzen direla ziurtatuz. Sesio hau adineko bi pertsonen eraman beharko lukete aurrera², eta dituzten kezkak ozenki komentatzeak duen garrantzia azpimarratu beharko dute. Behin sesioa bukatuta, gainerako kirolariek bezala, haur bakoitzak dokumentua sinatuko du³.

Nire kirol praktikan, hurrengo konpromisoak hartzen ditut:

- Kirol instalakuntzak eta/edo materiala errespetatuko ditut, eta nire kirol praktikarako ezarritako eremuetan mantenduko naiz.
- Ez ditut kirol instalakuntzak utziko nire entrenatzailea, edo kirol entitateko adineko pertsona bat abisatu gabe.
- Beharrezko materiala eta klubak emaniko kirolerako arropa eramango dut entrenamendu zein partiduetara.
- Aldageletako jokaera arauak errespetatuko ditut.
- Kirol instalakuntzaren erabilera arauen edo Jokabide Kodeen inguruko zalantzarik izanez gero, nire entrenatzailearengana, babeserako ordezkariarengana, edo instalakuntzen arduradunarengana joko dut.
- Ez dut erreko, ez dut alkoholik edango, eta ez dut drogarik kontsumituko kirol instalakuntzetan.
- Ez dut inongo substantzia dopatzailerik kontsumituko.
- Nire entrenatzailea eta nire taldekideak errespetatuko ditut.
- Joko garbia sustatuko dut, eta kiroltasuna mantenduko dut garaipenetan zein porrotetan.
- Nire aurkariak eta epaileak (edo juezak) agurtuko ditut
- Kiroltasunez eta errespetuz onartuko dut epaileen (edo juezen) edozein erabaki. Erabakien inguruko zalantzak, nire entrenatzailearekin komentatuko ditut, horretarako egokiak diren unetan. Hitz egin daiteke; errespetuz.
- Entrenamenduetara, lehiaketara, eta nire kirol aktibitatearekin lotutako beste edozein ekitalditara puntualtasunez iristea bermatuko dut. Atzeratu ezker, nire entrenatzailea lehenago abisatzeaz ziurtatuko naiz.
- Nire entrenatzailea ohartaraziko dut kirol aktibitatea baino lehenagoko edozein lesio edo gaixotasunen inguruan.
- Ez dut bullying egingo:
 - o Sexua, arraza, erlijioa, identitate edo orientazio sexuala, edo kirol gaitasunagatik diskriminatuz.



- Burla eginez edo umiliatuz.
- Sare sozialak modu desegokian erabiliz –adibidez, argazki edo komentario desegokiak argitaratuz (Instagram, Facebook, Snapchat, Twitter, TikTok, etab.), norbait mindu edo gaizki sentiarazteko.
- Borrokatuz edo beste pertsona bat minduz (fisikoki edo emozionalki)
- Ez dut ez sexu gehiegikeriak ezta jazarpenik egingo.
- Babes ordezkaria edo adineko pertsona bat ohartaraziko dut bullying-a egiten badidate, edo beste norbaiti egiten diotela ikusten badut.
- Babes ordezkaria edo adineko pertsona bat ohartaraziko dut sexu-eraso bat egingo balidate, edo beste pertsona bati egiten diotela ikusiko banu.

¹ Jokabide Kode honen barne daude dibertsitate funtzionala duten kirolariak.

² Adin txikikoen kasuan, familiak sesiora gonbidatu ahalko dira.

³ Sinadura 12 urtetatik aurrera izango da legezkoa. 12 urte baino gazteagoak direnentzat, familiek sinatu beharko dute dokumentua, Jokabide Kodea beraien seme edo alabari azaldu zaiola baieztatuz..

- Nire kirol praktikan, hurrengo eskubideak ditudala ulertzen dut:
- Nire kirol gaitasunak garatu eta hauetaz gozatu.
- Seguru sentitu, pozik eta nire taldekideen neurri berean baloratua. Sexua, arraza, erlijioa, identitate edo orientazio sexuala, edo kirol gaitasunagatik, epaitua edo diskriminatua ez izatea.
- Nire kirol praktikaren, helburuen eta metodologiaren inguruko erabakietan jakitun izatea.
- Gaizki edo triste sentiarazten nauten, adineko pertsonen edo beste kirolarien jokabide ezegokien aurrean babestuta egotea.
- Hitz egitea, besteek entzutea eta kontuan hartzea, bereziki kezka badituz edo ez banaiz seguru sentitzen.
- Laguntza non eta nola eskatu dezakedan jakitea, edo norekin hitz egin dezakedan edozergatik beldurtuta edo kezkatuta nagoenean.
- Arazo baten berri emanez gero, niretzat ondorio negatiborik ez izatea.
- Istripu edo lesioren bat izanez gero, tratatua izan.
- Kirol praktika bertan behera utzi, nik erabakitzen dudana momentuan.



Jokabide Kode honen sinadurarekin hartutako konpromisoak ez betetzeak, berehalako ondorioak izango ditu, larritasunaren arabera, nire aktibitatea etetea edo entitatearekin nire erlazioa mozteraino hel daitezkeenak.

Nik,-k (izen-abizenak) Jokabide Kode honekin ados jokatzeko konpromisoa hartzen dut.

Erakundearen izena: TRINTXERPE K.E.

Sinadura:

Data

Izen-abizenak, sinadura, eta erakundearen lekukoaren kargua:

IGOR UBARRETXENA BELAMENDIA, PREBENTZIO-DELEGATUA



3. JOKABIDE KODEA

(Teknikari, mediku, epaile, administrazio eta zerbitzuetako pertsonala, boluntarioak)

Kirol erakunde bat osatzen duten pertsona guztiek eragin handia dute kirolarien jardueran eta hauen garapen sozialean. Horregatik, haien erantzunkizuna da persona guztientzat kirol esparru segurua, positiboa eta barneratzailea sortzea. Garrantzitsua da teknikariek eta zerbitzu medikuko kideek, administrazio eta zerbitzuetako pertsonalak, familiek, boluntarioek eta erakundearen jarduerarekin lotura duten pertsona guztiek kirolarien eskubideak eta ongizatea errespetatzea.

Honako jokabide kodearen helburua kiroleko profesionalen zein boluntarioen portaera egokia zehaztea da. Jokabide Kode hau sinatzea derrigorrezkoa da eta honako printzipioetan oinarritutako portaera jarraibideak errespetatzea dakar berekin: konpetentzia, konfiantza, errespetua, justizia, babesa, segurtasuna eta erantzunkizuna.

TRINTXERPE KE-ko, estamentu teknikoko kide, talde medikuko kide, administrazio eta zerbitzuetako langile edo boluntario naizen aldetik, **konpromisoa hartzen dut:**

- Kirola esperientzia positiboa izan dadin lan egitea, eta kirolarien ongizatea eta babesa kirol emaitzari baino garrantzia handiagoa ematea.
- Nire erreferentziako erakundeak babesari buruz proposatzen dituen formakuntza saioetan parte hartzea.
- Kirolari bakoitzaren duintasuna eta eskubideak errespetatzea, eta inor ez diskriminatzea honako arrazoiengatik: sexua, adina, arraza, azal kolorea, etnia, jatorria, hizkuntza, erlijioa, ideologia, aniztasun funtzionala, sexu identitatea edo orientazioa.
- Nire ardurapean dauden kirolariek guztiak berdin baloratzen ditudala eta faboritismoak egiten ez dudala sentitu dezaten ziurtatzea. Kontuz!!! Denak ezberdin tratatu bai, baina faboritismoak haratago doaz: mesedeak, tratuak, kirolaz-kanpotiko erlazio/interesak, laguntasunak. Hauek guztiz ekidin behar ditugu.
- Kirolarien bizitza pribatua errespetatzea, kirol jarduerarekin zerikusirik ez duten gaietan muturra sartzea ekidituz. Laguntzeko prest bai, baina muturra sartu gabe.
- Praxi ezegoki, indarkeria edo abusuari buruz sortzen zaizkidan edozein zalantza babeserako ordezkariari adieraztea. Ekintza eza ez da aukera bat.
- Kirolariek edo haien familiek Praxi ezegoki, indarkeria edo abusuari buruz azaltzen dizkidaten zalantzak entzun eta babeserako ordezkariari adieraztea.
- Eredu izatea eta kiroltasunez jokatzeko erabakiak errespetatzea barne-; alkoholik ez edatea eta drogarik ez kontsumitzea; substantzia dopatzailerik ez kontsumitzea; hitz itsusiak ez esatea; komentario sexista, homofobo, lesbofobo, transfobo edo diskriminatzaileak ez egitea.
- Nire konfiantza posizioa errespetatzea, kirolariek muga egokiak mantentzea, eta nire hauekiko konfiantza eta botere posizioa modu ezegokian ez erabiltzea.
- Lan egiteko giro eta espazio irekiak sortzea, eta kirolariek bakarka denbora pasatzea ekiditea.
- 18 urtez beherakoentzat programatutako jardueretara garaiz iristea, babes-neurri egokiak hartu



direla ziurtatzeko.

- Kirolarien segurtasuna bermatzea jarduerak ikuskatuz, eta entrenatzeko teknika eta metodo positibo eta seguruak erabiliz.
 - Bullying ez egitea.
 - Kirolariekiko edo kirolarien arteko edozein bullying motaren aurrean neurriak hartzea.
 - Modu eraikitzailean komunikatzea, adin bakoitzera egokituta, eta inor umiliatu gabe.
 - Kirolariek erabakiak hartzen parte hartzeko aukerak eskaintzea.
 - Harreman positiboa izatea 18 urtetik beherako kirolarien familiekin eta, eskatzen digutenean, haiekin komunikatzea haien seme-alaben kirol-garapenari buruz.
 - Arauak haustea ez onartzea, ezta inolako indarkeriarik adieraztea ere.
 - Kaltetutako pertsoneri buruzko informazioa haien onespena gabe zabaldu ez dadin ziurtatzea, eskumena duten agintariek agintzen ez badute.
 - Kirolariek hitzeko jolas probokatzailerik, fisiko edo sexualetan ez parte hartzea, ezta kontaktu desagokoa (ipurmasailak, genitalak, bularrak) dakarten jokoetan ere. Ez ditut onartuko.
 - Kirolariak nire ibilgailu pribatuan ez garraiatzea, larrialdia ez bada. Kasu horretan, abisua emango diot erakundeko zuzendaritza teknikoaren arduradunari edo zuzendaritza-taldeko norbaiti.
 - Ez naiz bakarrik geratuko adin txikiko kirolariek.
 - Ez dut inolako sexu-harremanik izango kirolari batekin, eta ez dut sexu-proposamen edo iruzkinik egingo.
 - Ez dut erabiliko sexu-konnotazioak dituen hizkuntza ez-berbala (begirada lizunak, txistuak, etab.).
 - Ez dut nire intereserako lotura emozionalik sortuko adin txikiko batekin.
 - Ez dut presiorik egingo, ez dut beldurtuko, eta ez dut kirolari bat umiliatuko kontrolatzeko modu bezala.
 - Ez naiz aldageletara sartuko kirolariak aldatzen ari diren bitartean, larrialdi-egoeretan izan ezik.
 - Ez dut argazkirik aterako aldageletan, arroparekin edo arroparik gabe, eta ez dut onartuko beste pertsona batzuek hori egitea.
 - Ez ditut telefonoa eta sare sozialak modu desagokian erabiliko - Eduki pornografikoak partekatzea, adin txikiko batekin elkarriketa pribatuak izatea, kirolarien ongizatea kaltetu edo arriskuan jar dezaketen iruzkinak idaztea, eta abar -.
- Ez dut kalte fisikorik egingo, ezta inor mehatxatuko ere.

TRINTXERPE KE-ko estamentu teknikoko kide, talde medikuko kide, administrazio eta zerbitzuetako langile, edo boluntario naizen aldetik, **eskubidea dut**:

- Nire lanaz gozatzea eta TRINTXERPE KE-aren laguntza izatea nire jarduera niretzat segurua izan dadin.
- Informazioa eta prestakuntza jasotzea babes-prozedura eta -protokoloei buruz, bai eta nire kirolarien babesa bermatzeko prozedurei buruz ere.
- Nire lanaren edo jardueraren alderdi guztiei buruzko etengabeko prestakuntza jasotzeko aukera izatea.
- Erakundean egiten dudako jardueran eragina duten gaiak buruzko erabakiak hartzeko orduan niri entzutea edo kontuan hartzea.
- Erakunde honetako gobernu-organoei errespetu nazatela eta bidezko tratua eman diezadatelara.
- Ez nazatela presionatu edo ez ditzatela behartu jokabide-kode hau hausten duten ekintzak egitera.
- Erakundeko edozein kideren babesa lortzea edozein indarkeria fisiko edo emozionalen aurrean, kirolariak eta/edo haien familiak barne.



Jokabide-kode hau sinatuta hartutako konpromisoak ez betetzeak berehalako ondorioak ekarriko ditu, eta, larritasunaren arabera, nire jarduera etetea edo erakundearekin dudan lan-harremana etetea ekar dezake.

Nik, (izen-abizenak)

honako Jokabide Araudian ezartzen diren jarraibideak errespetatuz jokatzeko konpromezua hartzen dut.

Entitatea: **TRINTXERPE KIROL ELKARTEA**

Sinatzen duen pertsonaren kargua edo postua:

Sinadura:

Data:

Entitatearen aldetik lekuko den pertsonaren izen-abizenak, sinadura eta kargua:

IGOR UBARRETXENA BELAMENDIA, BABESERAKO ORDEZKARIA



4. JOKABIDE KODEA

(Familiak)

Gurasoek, edo gazteen tutoretzaren erantzuleek, kirolean balio positiboan garapena sustatu dezakete. Hau, momentu oro jokabide egokia azalduz gerta daiteke: sexu ezberdinetako kirolarien parte hartzea sustatuz, epaileenganako edo kirol ekitaldiaren antolatzaileenganako errespetua adieraziz, edo kirol aktibitatean zehar zentzuz jokatzuz.

Jokabide-kode hau kirolarien familiek irakurri eta sinatu beharko dute. Hala ere, komenigarria da bertan jasotako edukiak denboraldi hasierako bileran aztertzea. Familiek jakin behar dute jokabide desegokiak kirol-instalazioetatik kanporatzea ekar dezaketela

Guraso edo tutore arduradun naizen aldetik, honako **konpromiso** hauek hartzen ditut:

- Kirol-erakundearen jokabide-kodeak, araudiak, protokoloak eta kirol-instalazioaren arauak (aldagelak, harmailak, etab.) errespetatzea.
- Nire semea edo alaba kirola egitera animatzea, arauak eta pertsonak errespetatuz; eta gauzak bere gaitasunen arabera ahalik eta ondoen egiten irakastea.
- Nire semeak kirola egin dezan sustatzea, ikasteko eta gozatzeko.
- Nire semeak edo alabak kirola egiteko beharrezko materiala eta Klubak emaniko ekipamendu egokia duela ziurtatzea.
- Entrenamenduetara eta/edo lehiaketetara nire semea edo alaba garaiz iristen dela ziurtatzea. Atzerapenik izanez gero, entrenatzaileari behar besteko aurrerapenaz abisatzeko konpromisoa hartzen dut.
- Klubarekin hartutako konpromezuaren iraupena behatu, jokalariaren ongizateak bestela eskatu ezean, eta betiere Klubaren onespenerekin.
- Ziurtatu nire semeak edo alabak kirolarien jokabide-kodea ezagutzen eta ulertzen duela, eta kode hori errespetatzeko betebeharra duela..
- Jardueraren antolaketaz arduratzen diren langile guztiakin lankidetzan aritzea eta bertan parte hartzen duten pertsona guztiakiko (estamentu teknikoa, epaileen estamentua, boluntarioak, aurkariak, beste kirolari batzuk, etab.) errespetua erakustea.
- Errealista izatea eta nire semea edo alaba presionatzeari edo itxaropen faltsuak sortzeari uko egitea.
- Haien ahaleginak eta parte-hartzea goraiatzea, errendimenduan eta emaitzetan oinarritu beharrean.
- Nire semeari edo alabari entzutea, haren erabakiak errespetatzea eta haren kezkek eta/edo zalantzak serio hartzea.
- Entrenatzaileek hartutako erabakiak onartzea, harmailetan modu arduratsu eta positiboan jokatzeko, eta hitzez edo fisikoki agresibitatez ez agertzea.
- 18 urtetik beherako pertsonak agertzen diren argazkiak edo bideoak ez ateratzea, beren guraso, jokalaria edota Klubaren baimenik gabe.
- Sare sozialen erabilera desegokia ez egitea (norbait mindu dezaketen edo jarduera antolatzeaz arduratzen den federazioari edo klubari ezinegon sor diezaioketen iruzkinak argitaratzea barne).



- Talde teknikoari jakinaraztea nire semeak edo alabak duela gutxi izan duen edozein osasun-arazo.
- Nire semea edo alaba edo beste edozein kirolari (adin txikikoa edo heldua) babestearekin zerikusia duen edozein zalantza edo susmoren berri ematea babeseko ordezkariari.
- Nire semeak edo alabak kirolean parte hartzeko eskatzen diren baimen-inprimaki guztiak betetzea eta klubera eramatea.

Guraso edo tutore arduradun naizen aldetik, honako **eskubide** hauek ditut:

- Beharrezkoa den guztietan, kirol-erakundearen eta instalazioaren jokabide-kodeak, babes-politikak, protokoloak eta arauak ezagutzea eta kontsultatzea.
- Babes-delegatua ezagutzea eta haren harremanetarako datuak beti eskura izatea.
- Nire semearen edo alabaren zaintzaileei eta haien ibilbide profesionali buruzko informazioa jasotzea.
- Nire semea edo alaba seguru eta babestuta dagoela jakitea, edozein praxi txar, indarkeria edo abusuren aurrean.
- Nire semearen edo alabaren kirol-garapenari buruzko informazio jasotzea eskatzen badut.
- Nire semearekin edo alabarekin zerikusia duen edozein arazo edo kezkaren berri izatea.
- Babeseko ordezkariarekin hitz egin, nire semeari edo alabari buruzko kezkak adierazteko.
- Nire kezkak behar bezala artatzea.



Jokabide-kode hau sinatuta hartutako konpromisoak ez betetzeak berehalako ondorioak izango ditu, eta, larritasunaren arabera, entrenamenduetara edo lehiaketetara joateko baimena etetea ekar dezake.

Nik,

.....
.....-k (izen-abizenak) Jokabide Kode honekin ados jokatzeko konpromisoa hartzen dut.

Kirolariaren familia-lotura eta izen-abizenak:

.....
.....

Sinadura:

Data:



5. ALDAGELAK ETA DUTXAK ERABILTZEKO GOMENDIOAK

Batzuetan, zaila izaten da aldagelak erabiltzen dituzten pertsona guztien beharrei erantzutea, kirol- instalazio batzuen espazio-mugak direla eta. Haurrak bereziki kalteberak dira espazio horietan, beste espazio batzuetan baino gainbegiratze-maila txikiagoarekin arropak kentzen eta janzen dituztelako. Bereziki, kirolarien arteko bullyinga, helduak bertan ez daudenean gertatzen dena, bereziki garrantzitsua da aldageletan.

Gainera, arrisku-faktorea da pertsona helduen aldagelak (batzuetan kirol-erakundeak ez direnak ere bai) adin txikikoekin batera erabiltzea.

Garrantzitsua da aldagelak erabiltzeko arauak beti eskuragarri egotea instalakuntzan bertan, aldagelen kanpoaldean eta barruan.

Honako gomendio hauek aldageletan jokabide desegokiak izateko arriskua minimizatzen bideratuta daude:

- Helduek eta adin txikikoek aldi berean aldagela bat partekatzen badute, espazio bereziak egon beharko lirakeke aldatzeko eta dutxatzeko.
- Pertsona helduek ezin dute inola ere erantzi adin txikikoen aurrean.
- Helduek ezin dute aldatu edo dutxatu hurrekin, aldagela berean.
- Parte-hartze mistoko jardueretan, sexuaren arabera bereizitako aldagelak eman beharko dira. Transgeneroek beren burua identifikatzeko erabiltzen duten sexuaren arabera aldagela erabili ahal izango dituzte; hala ere, nahi izanez gero, aldatzeko eta/edo dutxatzeko aukera ematen duten jantzi pribatuak izatea aurreikusi beharko da.
- Haur bat deseroso sentitzen bada jendaurrean dutxatzen edo aldatzen, ez zaio presiorik egin behar, etxean dutxatzera animatu baizik.
- Dibertsitate funtzionala duten hurrek aldagelak erabili behar badituzte, aldagelen irisgarritasuna ziurtatu beharko da.
- Aldageletan telefono mugikorrak, bideo-kamerak edo ekipamendu fotografikoa erabiltzea erabat debekatuta dago.
- Aldagelarik ez badago, edo aldagelak okupatuta egongo badira, kirolariez arduratzen den talde teknikoak aldeztu aurretik jakin beharko du horren berri.
- Gurasoek ez dute aldageletan sartu behar, behar-beharrezkoa ez bada. Kasu horretan, aldatzen ari diren kirolarien sexu bereko pertsona batek bakarrik egin ahal izango du, entrenatzailea ohartaraziz.
- Pertsona helduek, teknikariek edo boluntarioek, batez ere aldatzen ari diren kirolarien sexuaren kontrako pertsonak, ezin dute bakarrik aldagelan sartu edo egon kirolariak arroparik gabe dauden bitartean.
 - o Kirolarien autonomia sustatu behar da, baina beharrezkoa da haur txikien edo dibertsitate funtzionala duen kirolari baten kasuan gainbegiratzea, aldatzeko eta dutxatzeko laguntza behar badu.



- Kirolariek gogoratu behar dute, sinatutako jokabide-kodearen arabera, pertsona heldu bati laguntza eskatuko diotela bullyingeko edo sexu-indarkeriako egoeraren bat jasaten edo ikusten badute. Hori aldageletan gertatuko balitz, aldageletatik atera eta laguntza eskatu beharko lukete.
- Aldageletan bullyinga dagoela susmatzen bada, babes-ordezkararen edo beste pertsona heldu batzuen presentzia aldi baterako neurri puntual gisa justifikatu ahal izango da. Hala ere, kasu horretan, gutxienez bi pertsona helduk gainbegiratu beharko dute.



6. FISIOTERAPIA-GELAK ETA BESTE ESPAZIO OSAGARRI BATZUK (BILTEGIAK, BULEGOAK, IKASTEKO GELAK, ETAB.) ERABILTZEKO GOMENDIOAK

Kirolarien osasuna eta segurtasuna une oro bermatu behar da. Babesa ez da mugatzen entrenamendu-lekuetara eta aldageletara; kirolariek erabili ohi dituzten beste espazio batzuk ere hartzen ditu, hala nola fisioterapia-gelak, bulegoak, muskulazio-gelak eta abar, horietan sexu- indarkeriako egoerak gerta baitaitezke.

Honako gomendio hauek espazio horietan jokabide desegokiak izateko arriskua arintzera bideratuta daude. Arau orokor gisa:

- Espazio horiek ez dira giltzaz edo kisketaz itxiko erabiltzen ari diren bitartean.
- Adin txikiko bat pertsona heldu batekin inoiz bakarrik ez egotea bermatuko da, publikoa edo ikusgarria ez den espazio batean (bulegoak, biltegiak, fisioterapia-gelak, etab.).
- Erabilera komuneko espazio osagarrietan, sexu-indarkeriarekin lotutako egoerei, jarrerei eta portaerei buruzko informazioa agerian jartzea gomendatzen da, sentsibilizazio-neurri gisa.
- Babes-ordezariaren datuak erabilera komuneko gune guztietan edo espazio osagarrietan ikusi behar dira.
- Espazioak irisgarriak izan behar dira dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat.
- Espezialistek (mediku-taldea, fisioterapeutak, etab.) beren lanbidearen kode etikoaren arabera jokatu behar dute, eta kirol-erakundeetan lanean hasi aurretik, sexu-indarkeria prebenitzeko ezarritako jokabide-kodea sinatu behar dute.
- Gune bakoitzaren irteerak behar bezala adierazita egon behar du.
- Ezin izango da argazkirik egin edo bideoak grabatu.

Fisioterapia-gela

- Aretoaren okupazioa zehazten duen kartel bat izan beharko dute ikusgai, fisioterapeutaren izena eta pazientearen izena adierazita.
- Gomendagarria da horrelako aretoetako hormek pribatutasuna emango duen beirazko horma motaren bat izatea, baina argia sartzea eta nolabaiteko ikuspena ahalbidetuko duena.
- Gela horiek ez dira giltzaz edo kisketaz itxiko erabiltzen ari diren bitartean.
- Adin txikiko bat tratatzen ari bada, aretoan bi pertsona heldu (mediku-taldekoak) egotea bermatuko da.
- Familiak eremu horretan sartzeko baimena eskatu ahal izango dute, baldin eta seme- alabak tratatzen ari badira eta baimena eman bazaie. Ezin izango da beste inor¹ aretoan egon.
- Fisioterapia-geletan telefono mugikorrak, bideo-kamerak edo ekipamendu fotografikoa erabiltzea erabat debekatuta egon beharko litzateke.
- Profesionalek bermatu beharko dute erabilitako lan-materiala homologatuta dagoela eta egokia dela tratatzen ari den pertsonaren adinerako.
- Adin txikikoak tratatuz gero, profesionalek ziurtatu beharko dute familien edo legezko tutoreen



baimen informatua dutela.

- Profesionalek tratamenduaren garapenari buruzko informazioa emango diete kirolariei (eta, adin txikikoak badira, haien familiei edo legezko tutoreei).

¹ Litekeena da fisioterapia-gelan pertsona bat baino gehiago aldi berean artatzea. Gela gortina batez bananduko balitz irizpideari eutsiko litzaioke: adin txikiko bat ez da sekula bakarrik egongo heldu batekin.



7. HARMAILETAN ADIN TXIKIKOEN KONTRAKO INDARKERIAREKIN ETA INDARKERIA MATXISTAREKIN LOTUTAKO JOKABIDEAK DESAGERRARAZTEKO GOMENDIOAK

Batzuetan, ahozko eta jokabide fisiko bortitzak eta, bereziki, sexu-indarkeria edo adierazpen arrazistekin lotutako jokabideak lehiaketak ikustera joaten den publikotik datoz; jokabide horien adibide argia da epaileei egindako irain matxistak gizonen lehiaketetan.

Erakunde batek konpromisoa hartzen badu kirola eremu seguru eta osasungarria izan dadin, eta protokolo baten bidez sexu eta era guztietako indarkeria saihesteko eta hari aurre egiteko politika garatzen badu, ez du utzi behar erakunde horren esku (zuzenean edo zeharka) dagoen lehiaketa bat egiten den instalazioetan horrelako jokabide onartezinak izaten.

Ondoren, harmailetan sexu, arrazismo eta orokorrean indarkeria mota guztiekin lotutako jokabideak prebenitzeko eta, halakorik gertatuz gero, horien aurka jarduteko gomendioak ematen dira.

- Harmailetan sexu-indarkeriarekin lotutako portaerak ez direla onartzen erakusten duten kartelak edo ohartarazpenak jartzea.
- Lehiaketa zabaltzeko edo sustatzeko egiten den komunikazio guztian, irainak, sexu-indarkeria eta jardunbide xenofoborekiko tolerantziarik ezari buruzko ohartarazpen bat sartuko da.
- Megafonia bidezko lokuzio edo komunikazioetan, ikusle gisa joaten diren pertsoneri gogoraraztea espazio horretan ez dela onartzen aipatu jokabide desegokiak.
- Harmailetan irain larriak, arrazismo edota sexu-indarkeriarekin lotutako jokabideren bat gertatzen denean jarduteko prozedura ezartzea.
 - Toki-izaerako lehiaketetan, titulartasun publikoko instalazioetan, klubek jarduketa-protokolo bat diseinatu ahal izango dute Udalarekin batera, landa-ordezkariek udaltzainari dei egin diezaion, eta horrek irainak egin dituen pertsona landa-eremutik bota dezan.
 - Zelaiko ordezkariek gertakari horren berri eman beharko lioke babeseko ordezkariori, eta epaileei eskatu beharko lieke aktan sartzeko, dagokion federazioak gertatutakoaren berri izan dezan.
 - Kanporatutako pertsona klubeko bazkidea bada, klubeko Zuzendaritza Batzordeak edota Udalak berehalako neurriak hartuko dituzte, besteak beste: aldi baterako edo behin betiko bazkide-txartela kentzea; zelaian sartzeko debekua, etab.



- Kanporatutako pertsona kirolaria edo beste kirol-estamentu bateko kidea bada, erakunde eskudunak (Donostia Kirola, federazioa eta/edo kluba) egokitzat jotzen dituen neurriak hartuko ditu.



8. BIDAETARAKO ETA OSTATU-GAUETARAKO GOMENDIOAK

Lehiatzeko edo txapelketetara joateko bidaiek seguruak eta dibertigarriak izan behar dute. Familiak, oro har, beren seme-alabak kanpoan daudenean kezkatu egiten dira; baina bidaiak ondo planifikatzen eta prestatzen badira, behar eta arrisku posibleak kontuan hartu direla erakutsiz, kezka-maila nabarmen murriztu daiteke.

Gomendio hauen helburua da kirolarien babesa bermatzea bidaietan, hainbat prebentzio-neurri hartuz. Klubeko zuzendaritza-taldeak honako gomendio hauek **ziurtatu beharko ditu**:

- Bidaietan gutxienez pertsona heldu bat egon beharko da talde bakoitzeko, eta pertsona horrek berarekin doan taldeko kirolarien sexu berekoa izan beharko du.
- Babeseko arduradun edo ordezkari batek taldearekin bidaiatuko du.
- Jokalarien joan-etorria hainbat kotxetan egiten bada, hauek elkarrekin bidaiatuko dute, abiagune jakin batetik. Itzulera modu berean egingen litzateke.
- Adin txikiko bat bere senitartekoa ez den heldu baten kotxean joateko, haurraren guraso edo tutore baten baimena eduki beharko luke.
- Haurrak betiere egongo dira entrenatzaile edo Klubak esleitutako arduradunekin.
- Arduradunak (entrenatzaile edo talde-arduradunak) ez dira instalakuntzetatik aterako harik eta haur guztiak daudela eta aldagelak behar den bezala geratzen direla ziurtatu arte.
- Joan-etorrien arduradunek aintzat edukiko dute uneoro gure Klubaren Jokabide Kodea eta hartu gaituen klubaren jarraibideak edota erabilitako instalazioen arduradunek adierazi lezakeen araudia.

Ostatuen egonaldiak. Gaua ostatu batean pasa behar izatekotan gomendio hauek aintzat hartuko dira:

- Gelen banaketa bidaiaren aurretik antolatzea.
- Bidaiatu aurretik, bidaiaren arauak ezarri eta kirolariei jakinarazi beharko zaizkie.
- Bidaiatzen duten pertsona guztiek, helduek zein adin txikikoek, Jokabide Kodea sinatu dute.
- Pertsona helduen, arduradunen edo bidaia-ikuskatzaileen gelak behar bezala banatuta daudela ziurtatzea (adibidez, kirolariak hiru solairutan badaude, solairu bakoitzean gutxienez helduentzako gela bat egon beharko litzateke).
- Adin txikikoa ez da sekulan bakarrik egongo gelan.
- Adin nagusikoek ez dute logela partekatu behar adin txikikoekin.
- Ziurtatu kirolari bakoitzak bidaiaren babeseko arduradunaren izena ezagutzen duela.
- Teknikariak denbora libre ematen badu, kirolariek taldean egin beharko dituzte aisialdiko jarduerak, eta adin txikikoen ez da geratuko ostatuan.



- Harremanetarako pertsona bat izendatu beharko da klubean, familiek bidaiarekin lotutako edozein zalantza izan dezaten bidaiaren aurretik eta bitartean.
- Familiei eta kirolariei bidaian babeseko ordezkari gisa jardungo duenaren berri eman beharko zaie.
- Telefonoa piztuta edukitzea uneoro aurkitzeko moduan egoteko. Espedizio-taldeko kide bakoitzak (zuzendaritza-taldeko arduradunak, teknikariak, etab.) familien izenen eta telefonozenbakiaren zerrenda bat izan beharko du, eta alderantziz.



9. KIROL-ERAKUNDEKO LANGILEENTZAKO KOMUNIKAZIO-POLITIKA, IRUDIEN ERABILERA ETA SARE SOZIALAK DISEINATZEKO GOMENDIOAK

1. Irudiak grabatzea eta erabiltzea

Argazkiak eta bideoak oso tresna baliotsuak dira hainbat kirol-jarduera sustatzeko eta horien inguruko berrikuntzen berri publikoki emateko. Ohikoa da, halaber, entrenamenduetan eta lehiaketetan bideoak grabatzea, kirol-errendimendua aztertu eta hobetzeko. Beraz, irudiak erabiltzeak modu batera edo bestera laguntzen du kirol-jarduerak garatzen.

Hala ere, garrantzitsua da haurren eta kirolari gazteen babesa bermatzea, baita, irudiak manipulatu, kirolarien osasuna eta osotasuna kaltetu edo arriskuan jar dezaketen jokabideak saiheste aldera ere.

Hori dela eta, haurrek eta kirolari gazteek, hala nola haien familiek, jakin behar dute entrenamendu-saioak, lehiaketak eta kirola egitearekin lotutako beste jarduera batzuk hainbat arrazoiengatik argazkiak atera eta/edo bideoan grabatu ahal izango direla. Komunikazio hori irudiak erabiltzeko baimen informatua sinatzeko eskaeraren bidez egingo da, non irudi horien erabilera zehaztuko den.

Hala ere, honako kontsiderazio hauek ere kontuan hartu behar dira irudiak segurtasunez erabiltzeko eta **arriskua gutxitzeko:**

- Ez da onartu behar 18 urtetik beherakoekin banakako argazki-saioak egitea.
- Ezin da argazkirik atera edo bideoak grabatu aldageletan, komunetan edo geletan.
- Web-orrietan edo sare sozialetan argitaratutako irudiek ez dute inoiz datu pertsonalik eduki behar adin txikiko baten identifikazioa errazteko (helbidea, telefono-zenbakia, etab.).
- Adin txikikoez ez dute modu apalgarrian edo jarrera probokatzailan argazkirik atera behar. Ziurtatu behar da argazkian agertzen diren pertsona guztiak jantzita daudela.
- Ez da flash erabili behar, kirolarien segurtasuna arriskuan jar baitezake.
- Ikusle gisa parte hartzen duten familiei, legezko tutoreei edo erakundetik kanpoko beste pertsona batzuei 18 urtetik beherako kirolarien argazkiak edo bideoak egiten ez uztea.

2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) eta sare sozialak gaizki erabiltzearen arriskuak

- Adin txikikoei lotutako arrisku espezifikoak:
 - Datu pertsonalak eskuratzea eta banatzea
 - Argazkiak edo bideoak baimenik gabe banatzea edo argitaratzea
 - Material iraingarria edo desegokia bidaltzea



- Substantzia dopatzaileen erabilera sustatzea
 - Ziberbullyinga,
 - Groominga
 - Sexu-abusuak egiteko hurbilketa.
- Helduekiko arriskuak:
- Adin txikikoekin duten komunikazioa gaizki interpretatzea, ikerketa bat (diziplinazkoa eta/edo penala) edo diziplina-ekintza bat egitea dakarrena.

3. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera egokia

Beharrezkoa da IKTen eta sare sozialen erabilera egokiari buruzko gidak egotea. Garrantzitsua da klubean parte hartzen duten pertsona guztiek jakitea zer espero den haiengandik Interneten duten portaerari dagokionez. Helburua kirolariak babestea da, bereziki 18 urtetik beherakoak; hala ere, garrantzitsua da teknikariak, entrenatzaileak, boluntarioak eta kirol-erakundea bera babestea.

Kirol-erakunde gisa, konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Gure web orria, sare sozialetako kontuak, aplikazioak eta komunikazio elektronikorako beste edozein modu erabiltzean, jokabide egokiak eta desagokiak zein diren jakitea, bai langileenak, bai kirolarienak, bai haien senideenak.
- Segurtasun-printzipio berberak edozein gailu elektronikori, ordenagailuri, mugikorrari, tabletari, kontsolari eta abarri aplikatu behar zaizkiola ulertzea.
- Ziurtatzea bitarteko digitaletan (Facebook, Instagram, Twitter, web orria eta abar barne) egiten den edozein argitalpen indarrean dagoen legeria betez egiten dela, bereziki adin txikikoen eskubideei dagokienez.
- Gure erakundeak Interneten duen presentzia kudeatzeaz arduratzen den pertsonari (webgunea, sare sozialak, etab.) prestakuntza egokia ematea.
- Jokabide horien berri ematea erakundeko langile guztiei, boluntarioei, kirolariei eta haien familiei.

Gure erakundeak Interneten duen presentziaren kudeaketa honako jarraibide hauen arabera egingo da:

- Sare sozialen kontu guztiak gako batek babestuko ditu. Plantillako edo zuzendaritza-taldeko gutxienez hiru pertsonak izango dute kontu bakoitzerako sarbidea, eta sartzeko gakoa ezagutuko dute.



- Kontu bakoitza erakundeak horretarako izendatutako pertsona batek monitorizatuko du.
- Erakundeak Interneten duen presentzia kudeatzeaz arduratzen den pertsonak segurtasuneko ordezkariarekin kontsultatu beharko du kirolarien babesarekin zerikusia duen guztia.
- Kirolarientzat, talde teknikoko norbaitentzat edo erakundearentzat berarentzat desegokia den edo arriskutsua den argitalpen oro berehala ezabatuko da. Erabaki horren berri emango zaie eragindako pertsonari eta/edo haren senideei.
- Argitalpen guztiak datu pertsonalak babesteko legea zorrotz betez egingo dira. Era berean, uneoro saihestuko da adin txikikoaren identifikazioa errazten duen edozein datu edo irudi.
- Sare sozialen eta web-orriaren kudeaketaren arduradunak ziurtatu beharko du argitalpenetan eta/edo komunikazioetan agertzen diren pertsona guztien baimen informatua duela (18 urtetik beherako pertsonen kasuan, familiek edo legezko tutoreek sinatuko dute baimena).
- Ez da onartuko delitu-jokabideak idealizatu edo sustatzen dituen argitalpenik, ezta kirolarien segurtasuna arriskuan jartzen duen argitalpenik ere (adibidez, lesionatuta lehiatzen diren kirolariak idealizatzea, dopinagatik kondenatuak izan diren kirolariak idealizatzea, etab.).

Gure **teknikariengandik eta boluntarioengandik** espero dugu:

- Gomendio horiek ezagutu eta horien arabera jokatu.
- Zure kontu pertsonalak, sare sozialetan erakunde horri buruzko informazioa argitaratzeko ez erabiltzea. Edozein jakinarazpen ofizial erakundearen kontu ofizialetatik egin behar da.
- Beren taldekoa ez beste 18 urtetik beherako Whatsapp taldeetan parte ez hartzea.
- 18 urtetik beherako kirolariekin kontu pertsonaletatik mezu pribatuen bidez ez komunikatzea. Gurasoekiko edo tutoreekiko edozein komunikazio gurasoen edo tutoreen bidez egin behar da, eta beti kopian jarri behar dira bi pertsona heldu (babes-ordezkaria eta beste pertsona heldu arduradun bat).
- 18 urtetik beherako kirolariak beren kontu pertsonaletatik sare sozialetan "lagun" izateari edo "jarraitzeari" uko egitea.
- Egoki eta errespetuz jokatu behar dute Interneten, pentsatuz erakundeko adin txikikoek "jarraitu" ditzaketela.
- Entrenamenduan edo lehiaketetan telefono mugikorra ez erabiltzea, larrialdietan izan ezik.



Kirolariengandik espero dugu:

- Gomendio horiek ezagutu eta horien arabera jokatzea.
- Entrenamenduan edo lehiaketetan gailu mugikorrik ez erabiltzea, bai jendaurrean, bai aldageletan, larrialdietan izan ezik.



10. FAMILIEN BAIMEN-INPRIMAKIA KIROLARI ADIN TXIKIKOEN IRUDIAK INTERNETEN ERABILTZEKO⁵

Gure kirol-erakundearen jarduera komunikatzeko eta zabaltzeko eskura ditugun bitarteko digital berriak erabiliz, eta baliabide horietan bertako adin txikikoen irudiak lortu eta argitaratu daitezkeenez, eta norberaren irudirako eskubidea Konstituzioaren 18. artikuluan aitortuta dagoenez eta ohorerako eta intimitaterako eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak arautzen duenez, Pertsonala, familiakoa eta norberaren irudikoa, eta Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.

Hortaz, TRINTXERPE KE-ren zuzendaritzak irudiak argitaratu ahal izateko baimena eskatzen die 14 urtetik gorakoei, edo gurasoei edo legezko tutoretza dutenei, baldin eta adin horretara heldu ez badira. Irudi horiek, (denboraldia)....., –n zehar kiroleko edo erakundearen ingurunearekin lotutako elkarbizitzako-jarduera desberdinei buruz informatzeko asmoarekin soilik argitaratuko dira.

Irudi horien tratamenduari dagokionez, TRINTXERPE KE-k baldintza hauek bermatzen ditu:

- Irudiak jaso aurretik informazioa emateko konpromisoa, aldez aurreko baimenik behar ez bada ere, adin txikikoa argi eta garbi identifikatzea eragozten duten irudi orokorrak direlako.
- Baimena errebokatze edo hartutako irudiren batean agertzearen aurka egiteko eskubidea.
- Irudiak gure kirol-erakundeak zabaltzeko baino lehen berrikusteko konpromisoa.
- Irudiak ez zabaltzea, baldin eta irudi horiek iraingarriak, umiliagarriak, osperako kaltegarriak edo eragindako edozein pertsonaren interesen aurkakoak badira, nahiz eta adin txikikoaren edo haren legezko ordezkarien aldez aurreko baimena izan (Adin txikikoaren Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak jasotzen duen moduan).
- Hartutako irudien ondorengo tratamenduari edo hedapenari aurka egiteko eskubidea.

⁵ ITURRIA: *Gida, teknologia digitalen erabilera arduratsua izateko kirol-erakundeetan adingabeekin* (2017). Eusko Jaurlaritzaren Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak. Nondik hartuta: https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/gida/eu_def/adjuntos/02-Gida_TeknologiaDigitalak_Adingabeak_KirolErakundeetan.pdf



14 urtetik beherako kirolaria

(izen-abizenak)-k NAN zkia.
(NAN)baimena ematen diot entitate honi, TRINTXERPE
K.E.

14 urtetik gorako kirolaria

(izen-abizenak)-k NAN zkia. (NAN).....(adin txikikoaren izen-abizenak).....aita/ama (kasuan kasu, beste gurasoaren baimenarekin) edo ordezkari legala naizen aldetik baimena ematen diot TRINTXERPE KE-ri.

Erakundearen ordezkari gisa parte hartzen duen kirol-jardueretan eta jarduera osagarrietan lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea:

- Erakundearen webgunea
BAIMENA EMATEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN
- Sare sozialetako plataformak
BAIMENA EMATEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN
- Beste argitalpen batzuetarako bideoak edo argazkiak
BAIMENTZEN DUT EZ DUT BAIMENIK EMATEN

Data:

Sinadura: